

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZEANURIKO UDALAREN 2013-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 28an aho batez onartu zuten Zeanuriko Udalaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiari dagokiona.

Txostenak dio Udalak zuzentasunez bete duela 2013ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen legeria, nahiz azpimarratu duen 2013an obra kontratu baten lizitazioa ez zela kontratugilearen profilean argitaratu. Gainera, aurreko ekitaldietan esleitu ziren 3 kontratutan, 2013an egikaritzen jarraitu dutenetan, horietako bat publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitu zela ikusi da eta gainerako biak ez zirela ez BAOn, ez kontratugilearen profilean argitaratu, nahitaezkoa zenean.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEren iritzira, alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2013ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere; salbuespen da gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrenda ez izatea eta ibilgetuaren amortizazio kontzeptuan inongo gasturik ez erregistratu izana.

Udalaren finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du aurrezki gordinak zein garbiak gora egin dutela, baso aprobetxamenduek eragindako aparteko diru-sarreraren eta Udalak abiarazitako funtzionamendu-gastuak murrizteko politikaren ondorioz. Aurrezki hau nahikoa izan da ekitaldian egikaritutako inbertsioak finantzatzeko, eta gainera, Diruzaintza Geldikinaren saldo negatiboa % 53 murrizteko. Zorpetzeari dagokionez, % 9 egin du behera, aldez aurretik 2 mailegu amortizatu direlako, BFAk emandako aparteko laguntza baten ondorioz. Udalak Doikuntza Plana onartu du, 2014ko itxieran Diruzaintza Geldikin positiboa bermatzearren.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak ez ezik, gastuaren araua ere bete duela.

## NOTA DE PRENSA DEL TVCP DEL INFORME DE FISCALIZACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE ZEANURI, 2013

---

El pasado 28 de julio el Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ha aprobado por unanimidad el informe de fiscalización de la gestión económico-financiera del Ayuntamiento de Zeanuri correspondiente al ejercicio 2013.

El Informe concluye que el Ayuntamiento **ha cumplido razonablemente con la normativa legal** que regula su actividad económico-financiera durante el ejercicio 2013, si bien se ha detectado que la licitación en 2013 de un contrato de obras no fue publicada en el perfil del contratante. Además, en la adjudicación en ejercicios anteriores de 3 contratos, que han continuado ejecutándose en 2013, se ha detectado que uno de ellos fue adjudicado por procedimiento negociado sin publicidad, cuando debía haberlo sido por procedimiento abierto, y los otros 2 no se publicaron ni en el BOB ni en el perfil del contratante, cuando era preceptivo hacerlo.

En relación con las **cuentas anuales**, el TVCP opina que expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera al 31 de diciembre de 2013 así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo, con la salvedad de no disponer de inventario de bienes y derechos actualizado ni registrar gasto alguno en concepto de amortización del inmovilizado.

En relación con **la situación financiera** del Ayuntamiento, el informe destaca el incremento experimentado tanto en el ahorro bruto como en el neto, debido a los ingresos extraordinarios por aprovechamientos forestales y a la política de reducción de gastos de funcionamiento llevada a cabo por el Ayuntamiento. Este ahorro ha sido suficiente para financiar las inversiones ejecutadas en el ejercicio y, además, reducir el saldo negativo del Remanente de Tesorería en un 53%. Respecto al endeudamiento, ha disminuido en un 9%, al haberse amortizado anticipadamente 2 préstamos como consecuencia de una ayuda extraordinaria concedida por la DFB. El Ayuntamiento ha aprobado un Plan de Ajuste para garantizar un Remanente positivo al cierre de 2014.

Además, el Informe concluye que el Ayuntamiento ha cumplido en 2013 con los objetivos de **estabilidad presupuestaria y deuda pública**, y con la **regla de gasto**.